

AITZAKIARIK EZ

DENBORA: 4 eskola-ordu

IKAS-JARDUERAK

0 NIRE USTEZ...

Helburuak: Ikasleek dituzten ideiak antzematea.

Gaiaren inguruan gogoeta egitea, iritziak eta argudioak era askotakoak direla kontuan hartuz.

Deskripzioa: Ikasleek egindako proposamenetatik eta azaleko portadak behatzetik abiatuz, bakarka gogoeta egitea eta taldeka eztabaidatzea.

Orientabideak: Ikasle bakoitzak gogoeta egin eta argudioak eman ditzan saiatzea. Bakarka emandako iritziak sustatzeko ideiak bilatuko dituzte; laburpen bat egingo dute, gero, taldean eztabaidatzeko. Irakasleak galderak aldatu edo moldatu egingo ditu, ikasleak nolakoak diren ikusita. Nahi izanez gero, lehenik talde txikitik egin daiteke lana edo, bestela, zuzenean talde handian. Aldez aurretik ikasleei azaldu kontua ez dela nesken eta mutilen arteko liskarra piztea, eta ezinbestekoa dela errespetua.

1 GURE ETXEAN

Helburua: Etxeko zereginen buruz eta gizartean ematen zaien garrantzi eskasaz gogoeta egitea.

Deskripzioa: Etxeko kideen egun arrunt bateko lan-ordutegia egitea.

Orientabideak: Mutilen eta nesken ordutegiak kontuan hartuz, etxeko zereginen buruz eta gizartean ematen zaien garrantzi eskasaz mintzatu da. Irakasleak egoerak ez direla berdinak nabarmenduko du: adibidez, ama batzuek lan horiek egitearren kobratzen dute, baina etxean bertan egindakoa ez da aintzat hartzen. Etxetik kanpo lan egiten duten emakumeek, gainera, lan-jarduera bikoitza izaten dutela azaldu.

2 EMAKUMEEK EGITEN DITUZTE BATEZ ERE ETXEKO ZEREGINAK

Helburua: etxeko zereginetan gizonek eta emakumeek duten parte-hartze desberdina konprobatzea.

Deskripzioa: datu estatistikoen irakurketa eta interpretazioa eta eztabaida.

Orientabideak: datuak errazago irakurtzeko, grafikaren bat egin daiteke. Agian komenigarria da estatistikak eta ikasleen etxeko giroa elkarren artean konparatzea.

3 SOLDATA DESBERDINAK EMAKUMEENTZAT ETA GIZONENTZAT

Helburua: Emakumea etxean ezik lanean ere berezita dagoela ikustea.

Deskripzioa: Gizonek eta emakumeek batez beste dituzten soldatei buruzko datu estatistikoak behatu eta interpretatuko dira.

Orientabideak: Irakasleak horrela irizten badio, beste datu batzuk ere ekar ditzake, adibidez, kargu politikoetan, lanbideetan eta bestelakoetan gertatzen den bereizkeriaz.

4 AFRIKAKO LANDAGUNEAN, EMAKUMEAK EZINBETSEKOAK DIRA EKONOMIARAKO

Helburua: Azpigaraturiko herrialdeak hizpide hartuz, emakumeak etxeko eta herrialdeko ekonomian duen garrantzia konprobatzea.

Deskripzioa: Afrikako nekazalguneean emakumeek eta gizonek egiten duten lanari buruzko datu estatistikoak kontuan hartuz, barra-grafiko bat egingo dugu.

Orientabideak: Datu batzuk behatu eta barra-grafiko bat egin. Sexuaren araberako bereizkeria herrialde aberatsetan zein pobreetan gertatzen dela nabarmendu, baina, betiere, herrialde pobreetan emakumeek zama handiagoa hartu behar dutela azalduz.

5 AFRIKAN, EMAKUMEEK ZEREGINA DA ETXEKO EKONOMIA

Helburua: Afrikako herrialde batean emakumeak etxeko ekonomian duen garrantzia aztertzea.

Deskripzioa: Galderak komiki bat aztertu ondoren egingo dira, non Afrikako herritarra bateko emakumearen eguneroko bizitza agertzen den.

Orientabideak: Komikiari buruz eztabaida egitea da helburua. Ikasleei gehiegi irudituko zaie, baina joera hori nahiko hedatuta dagoela Afrikan azaldu behar zaie. Azaldu nahi dena da, hor bereizkeria eta injustizia azaltzen dela, are handiagoa etxean bertan gertatzen delako, non horrelako egoerak errazago ikusten diren.

Ikasleak bere etxeko egoari erreparatuko dio, eta konparatu. Agian antzemango du hainbestearinokoa ez izan arren, gertatu gertatzen dela.

6 EMAKUMEA BEREIZIA IZATEAREN ARRAZOI BATZUK

Helburua: Emakumea bereizia izatearen arrazoi batzuk identifikatzea.

Deskripzioa: Testu bat irakurri ondoren, aintzat hartzen ditugun ideiak eta aintzat hartzen ez ditugunak nabarmenduko dira.

Orientabideak: Ikasleek ekarritako ideiak erabiliz, emakumea bereizia izatearen arrazoiak eta horren ondorioak eztabaidatuko dira. Testuan badaude ideia batzuk, baina irakasleak beste batzuk azal ditzake, ikasleen ikuspuntuak kontuan hartuta.

7 ZER EGIN DEZAKEGU GUK?

Helburua: Emakumea bereizia izan ez dadin ikasleek egin dezaketenaz hausnartzea.

Deskripzioa: Taldea batuta, emakumea bereizia ez izateko egin daitekeenari buruzko eztabaida egin eta proposamen batzuk garatu.

Orientabideak: Talde bakoitzak bizitzako eremu bat antzeztuko du. Zeharka bada ere, ikasleek konponbide batzuk azalduko dituzte; beraz, egoerak dimentsio soziala duela ikus dezaten lagundu behar zaie. Ikasleak ikasitakoak eragin izan dezan bere testuinguruan, eskolari edo etxeari dagozkion proposamen batzuk burutzea komeniko litzateke. Prozesu osoan zehar, erantzukizunak konpartituak izan behar dutela ikusarazi behar da, estereotipoak bereiziz.

8 IKASIDUDANA ALBISTE BAT OSATZEKO ERABILIKO DUT

Helburuak: Ikasitakoaz gogoeta egin eta ideia nagusiak laburbiltzea.

Deskripzioa: Ideia nagusiak hartuko dituen albiste bat diseinatuko da.

Orientabideak: Taldea bilduta, albiste bat diseinatuko da, eskura daukagun material guztia (argazkiak, prentsa...) erabiliz; kontuan hartuz, jakina, ikasitako eduki nagusiak bildu behar direla.

GLOSATEGIA

POBREZIAREN FEMINIZAZIOA

Pobrezia batez ere eta gero eta gehiago emakumeei dagokiela adierazten digun tendentzia.

ZATIKETA LANEAN/ENPLEGUAN

Gizonak eta emakumeak lan-era eta lan-moten arabera sailkatzea, zeinaren arabera emakumeak gizonezkoak baino lan-aukera gutxiago daukaten (zatiketa horizontala), eta lan-postu eskasagoak (zatiketa bertikala).

ORDAINDU GABEKO LANA

Lan eginagatik, ordaintzen ez den jarduera; ez zuzenean, ez bestela.

LAN ORDAINDUA

Lanaren truke, diruz edo bestela ordaintzen dena.

LMHko 3. ZIKLOA

AITZAKIARIK EZ







Egilea: José Palos



1

QUIRE ETXEAN

Beha itzazu zure etxean egiten diren jarduerak. Kide bakoitzak egiten duenari erreparatu, eta egin ezazu bakoitzari dagokion ordutegia. Behatu emaitzak.

	NIK				
					
					
					
					

Jarduera berberak egiten al dituzte denek? Zeintzuk dira ezberdinak? Zeintzuk dira familia osoari dagozkionak? Denbora berbera sartzen al du kide bakoitzak jarduera horietan?

2

EMAKUMEEK EGITEN DITUZTE BATEZ ERE ETXEKO ZEREGINAK

Beha itzazu datu hauek. Etxeko zereginetan emakumeek eta gizonek egiten duten lanari buruzkoak dira. Zeinek sartzen ditu ordu gehiago? Nolako zereginetan sartzen dute gizonek ordurik gehienak? Zeintzuk dira emakumeei omen dagozkien zereginak? Logikoa al da?

Estatu espainiarrean etxeko zereginetan sartutako orduak, batez beste, pertsonen sexuaren arabera (minututan).

Egindako jarduerak	Gizonek	Emakumeek
Etxea garbitzen	67	210
Janaria prestatzen	50	114
Platerak garbitzen	30	56
Haurrak zaintzen	102	121
Arropa eta oinetakoak garbitzen	35	102
Landareak eta animaliak zaintzen	42	41
Janaria eta garbikariak erosten	104	181
Etxeko konponketa txikiak egiten	87	33
Autoa mantentzen	79	24
Bankuetan eta administrazioan gestioak egiten	72	60

Iturria: Lucía Finck: "El reparto del trabajo doméstico en la familia": CEAPA (www.ceapa.es).

Gizonek zein emakumeek, biek kanpoan lan egiten badute, justua al da egoera hori? Zergatik? Datuak bat al datoz zure etxeko kideen ordutegiarekin?

3

SOLDATA DESBERDINAK EMAKUMEENTZAT ETA GIZONENTZAT

Behatu beheko datuak eta denon artean komenatu. Zer iruditzen zaizkizu? Zure ustez, zergatik ordaintzen zaie gutxiago emakumeei? Zenbat ordu gehiago lan egin beharko luke emakumeak gizonak beste diru jasotzeko?

Soldataren batezbestea orduko Estatu espainiarrean, enpresa-alorrean.

	Soldataren batezbestea orduko
Gizonak	10,41 euro
Emakumeak	7,29 euro

Industria eta zerbitzuei dagozkien soldatei buruzko inkesta INE. 2000ko 4. hiruhilekoa.

Gogora itzazu etxean eta lanean gertatzen diren beste egoera batzuk; zure ustez, zertan bazterten da jendea sexuaren arabera?


4

AFRIKAKO LANDAGUNEAN EMAKUMEAK EZINBESTEKOAK DIRA EKONOMIARAKO

Taula honek Afrikako emakumeek nekazaritzan egindako lanen berri ematen du. Beha itzazu datu hauek eta egin barra-grafiko bat.

Emakumeak Afrikan egindako lanaren ehunekoa (%)

Lana	Emakumeak	Gizonak
Lurra lantzeko prestaketa	5	95
Ereintza	70	30
Elikagaien garraioa	80	20
Egurra eta ura	90	10
Familiaren elikadura	95	5



Iturria: "Mujeres en el mundo rural". Hegoa. 1996

□ Emakumeak ■ Gizonak

AFRIKAN, EMAKUMEEEN ZEREGINA DA ETXEKO EKONOMIA

Irakur ezazau hurrengo testua:

"Herriskako gaixo bat medikuarenean"

Medikua: Zer gertatzen zaizu?

Gaixoa: Ez nago ondo, lan gehiegi egiten dudala uste dut.

Medikua: Zertan lan egiten duzu zuk?

Gaixoa: Nekazaria naiz

Medikua: Seme-alabarik ba al duzu?

Gaixoa: Bai, emazteak izandako hamabietatik, zazpi daude bizirik. Zortea izan dut.

Medikua: Emazteak lan egiten al du?

Gaixoa: Ez, berak umeak eta etxea zaintzen ditu.

Medikua: Ulertzen dut. Zuk egiten duzu lan gogor guztia. Zer egiten du emazteak?

Gaixoa: Goizeko lauretan jaikitzen da ura eta egurra ekartzeko, sua piztu, gosaria prestatu eta etxea garbitzeko.

Medikua: Besterik ez?

Gaixoa: Bai... Beno, gehiago ere egiten du. Ibaira joaten da arropa garbitzeko, egun batzuetan errotara joaten da alea ehotzera, edo herrira umeekin soroan jasotakoa saltzera, eta, orduan, etxean behar duguna erosten du. Amaitzen duenean, etxera itzuli eta janaria prestatzen dit.

Medikua: Zu etxera joaten al zara bazkaltzeko?

Gaixoa: Ez, berak ekartzen dit bazkaria, soroa hiru kilometroa baino ez baitago. Eta hara doanez, bertan geratzen da belarrak kendu eta ureztatzeko. Eta, orduan, herrira joaten naiz ni, negozio batzuk egin eta lagunekin egoteko.

Medikua: Eta gero zer egiten duzu zuk?

Gaixoa: Ilunabarrean etxera itzuli, emazteak prestatutako afaria jan eta oheratu egiten naiz.

Medikua: Eta emaztea ere ohera joaten da?


Gaixoa: Ez, berak ezin du, zereginak ez baitaizkio amaitu.

Medikua: Baina ez al didazu esan emazteak ez zuela lanik egiten?

Gaixoa: Ez, ba. Emazteak etxeko ardura du. Soroan, nik egiten dut lan.

Medikua: Eta bera ez al dago gaixorik?

Gaixoa: Ez dut uste. Zergatik egongo da gaixorik? Ez diot galdetzen. Bera etxean dagoenez, eta ni soroan, lanean?



Testu horrek Afrikako emakume nekazariaren bizitza kontatzen du. Zure ustez, zeinek darama etxeko ekonomiaren zama? Zer iruditzen zaizkizu gaixoaren azalpenak? Ba al dago erlaziorik kontakizunaren eta aurreko galderaren emaitzen artean? Zer azaltzen digute datuek?

6

EMAKUMEA BEREIZIA IZATEAREN ARRAZOI BATZUK

Irakur ezazu testu hau. Beheko laukian, ezkerreko aldean, idatz itzazu ontzat hartzen dituzun ideiak, eta eskuineko aldean, ontzat hartzen ez dituzunak. Denon artean komentatu.

Historian zehar, politika, enpresa eta, oro har, erabakiak hartzen den tokietatik urrundua izan da emakumea.

Emakumeen baztertze-egora hori –munduko populazioaren erdia baino gehiago izanda– injustua da. Hauek dira emakumeak baztertzeko ematen diren azalpen batzuk, alegia, indar gutxiago daukatela, ama izan eta umeak zaindu behar dituztenez, arazoak sortzen direla lanean, agintzeko gaitasunik ez daukatela, sentikorregiak direla, ikasteko eta ezagutza teknikorako ahalmen eskasagokoak direla, lehenago uzten dituztela ikasketak, etab. Ez al duzue uste nahiko eskasak direla arrazoi horiek?

Herri aberatsetan emakumeek jasaten duten bereizkeria injustua da. Giza Eskubideen kontrakoa da, eta emakumeen zein herri osoaren kalterako. Baina, herrialde pobreetan are larriagoa da, ez baitute ia aukerarik elikatzeko, osasunerako, ikasteko, lanaren truke soldata jasotzeko, etab., baina, aldi berean, hori dena lortu behar du bere etxekoentzat.

Pertsonak, emakumezkoa zein gizonezkoa izan, ezberdinak gara, eta ahalmen ezberdinak ditugu.

Horregatik, bakoitzari bere ahalmenen arabera kolaboratzea dagokio gizartearen garapenean.

ADOS NAGO

EZ NAGO ADOS

7

ZER EGIN DEZAKEGU GUK?

Talde txikitan batuta, pentsa ezazue emakumeak jasaten duen bereizkeria kentzeko zer egin daitekeen

Gobernuan

Lantokietan

Eskolan

Idea batzuk: irrati-programak, gutunak, kartelak, solasaldiak, norbaiti laguntzeko kopromisoa, norbait errespetatu. Beste gauza batzuk...

Familian

8

IKASI DUDANA ALBISTE BAT OSATZEKO ERABILIKO DUT

Taldeka batuta, TBrako albiste bat prestatzea proposatzen dizuegu: emakumearen bereizkeria, horren arrazoi batzuk, ondorio batzuk eta konpobide batzuk

EGUNKARIA

43.728 zenbakia 1 euro